

ONLINEKO
KARTEL
LEHIAKETA



DONOSTIA
ZINEMALDIA

SANSEBASTIANFESTIVAL.COM/KARTELLEHIAKETA



XEDEA

Donostia Zinemaldiak VI. online kartel-lehiaketa deitu du jaialdiaren 65. edizioan bere bost sail nagusien irudiak izango direnak aukeratzeko: Zuzendari Berriak, Horizontes Latinos, Zabaltegi-Tabakalera, Perlak eta Culinary Zinema.

Zinemaldiaren helburua sorkuntza eta partaidetza sustatzea da, baita jaialdiaren hedapena bultzatzea ere. Lehiaketa irekita dago proposamenak aurkeztu nahi dituzten diseinatzaile guztientzat, adierazitako sailtako irudiak egin ditzaten, eta herritarrek kartelik gustukoena bozkatzeko aukera izango dute. Ostean, epaimahai batek irabazlea eta, gehienez, lau finalista hautatuko ditu kategoria bakoitzean, eta lanen aldeko botoa eman dutenen artean sariak zozketatuko dira.

LABURPEN KRONOLOGIKOA-FASEAK

- Izena ematea eta proposamenak aurkeztea: **Urtarrilaren 13tik (13:00 h GMT+1) otsailaren 20ra (13:00 h GMT+1).**
- Publikoaren bozketa: **otsailaren 22tik (13:00 h GMT+1) martxoaren 8ra (13:00 h GMT+1).**
- Finalisten jakinarazpena: **martxoak 10**
- Epaimahaiaren deliberazioa eta irabazleari edo irabazleei jakinaraztea: **martxoak 14**
- Kartel irabazleen jakinarazpen publikoa: **maiatzak 12**
- Kartel irabazleen aldeko botoa eman dutenen arteko sari-zozketa: **maiatzak 16**

KARTELA

Kartelek originalak eta argitaragabeak izan behar dute, eta beste edozer lehiaketatan aurkeztu gabeak.

Kartelaren egileak izan beharko du kartelean erabilitako irudien eta elementuen jabea, edo erabilera askeko baliabideak izango dira.

Egileak izango dira oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzearen arduradun.

Lehiaketa honetan parte hartzeko, sail guztietarako kartel-proposamenak bidal daitezke, baina baita sail jakin baterako edo batzuetarako proposamenak bakarrik ere. Era berean, nahi beste kartel aurkeztu ahal izango dira sail bakoitzeko.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián




Gipuzkoako Foru Aldundia



rtve

gasNatural
fenosa

M+
movistar



Honako hauek dira sailak:

- **Zuzendari Berriak.** Zuzendariek beren lehenengo edo bigarren lanarekin parte hartzen duten nazioarteko lehiaketa. Guztiak ere argitaratu gabeko munduko ekoizpen zinematografiko berrienaren isla.
- **Horizontes Latinos.** Espainiako zinema-aretoetan estreinatu ez diren Latinoamerikako urteko film luze interesgarrienen lehiaketa.
- **Zabaltegi-Tabakalera.** Urteko zinema-proposamen anitzenei, harrigarrienei eta erakargarrienei zabaldutako saila. Atal honetan ez dago arau formalik ezta gai-mugarik ere.
- **Perlak.** Urteko film nabarmenenak biltzen ditu, publikoak gehien ikusi nahi dituenak. Hemen bildutako filmetako askok kritikaren aintzatespena eta nazioarteko beste zinema-jaialdi batzuetako sariak irabazi dituzte.
- **Culinary Zinema.** Zinema eta gastronomia uztartzen dituen saila. Gastronomiarekin loturiko proposamen zinematografikoen hautaketa bat dago, alde batetik, lehiari sartzeko dena, eta, ondoren, proposamen bakoitzarekin loturiko afari tematiko bat.

INSKRIPZIOAK ETA LOGOTIPOAK

Kartel guztiek logotipoak eta inskripzioak izan beharko dituzte. Jarraian zehaztuko dugu kategoria bakoitzak behar dituenak. Logotipoak eta inskripzioak argi eta garbi ikusteko moduan jarriko dira. Kartelen batek ez baditu dagozkion logotipoak edo inskripzioak, lehiaketatik kanpo geratu ahalko da, antolatzaileek hala erabakiz gero.

Jarraian emango ditugun logotipoak lehiaketari eskainitako gune berezian deskargatu ahalko dira www.sansebastianfestival.com/kartellehiaketa helbidean.

Kartel guztiek bildu beharko dituzte honako legenda eta inskripzio hauek:

Garrantzitsua: Hiru hizkuntzatan dauden testu guztiek ordena hau jarraitu beharko dute: euskara, gaztelania eta ingelesa.

ZUZENDARI BERRIAK:

- **Izen-emateak:**
 - » Nuev@s Director@s, Zuzendari Berriak, New Directors
 - » 22/30 Iraila – Septiembre 2017
 - » Donostia Zinemaldia, Festival de San Sebastián
 - » sansebastianfestival.com
- **Logoak*:**
 - » 65. Zinemaldia
 - » Kutxabank

HORIZONTES LATINOS:

- **Izen-emateak:**
 - » Horizontes Latinos
 - » 22/30 Iraila – Septiembre 2017
 - » Donostia Zinemaldia, Festival de San Sebastián
 - » sansebastianfestival.com
- **Logos:**
 - » 65. Zinemaldia

ZABALTEGI-TABAKALERA:

- **Izen-emateak:**
 - » Zabaltegi-Tabakalera
 - » 22/30 Iraila – Septiembre 2017
 - » Donostia Zinemaldia, Festival de San Sebastián
 - » sansebastianfestival.com
- **Logoak:**
 - » 65. Zinemaldia


PERLAK:

- **Izen-emateak:**
 - » Perlak/Perlas/Pearls
 - » 22/30 Iraila – Septiembre 2017
 - » Donostia Zinemaldia, Festival de San Sebastián
 - » sansebastianfestival.com
- **Logoak:**
 - » 65. Zinemaldia

CULINARY ZINEMA

- **Izen-emateak:**
 - » Culinary Zinema
 - » 23/29 Iraila – Septiembre 2017
 - » Donostia Zinemaldia, Festival de San Sebastián
 - » sansebastianfestival.com
- **Logoak*:**
 - » 65. Zinemaldia Culinary
 - » Basque Culinary Center
 - » Nespresso

*Zuzendari Berriak eta Culinary Zinema sailtako karteletan Kutxabanken, Basque Culinary Center eta Nespresso logoak, hurrenez hurren, ez dira Zinemaldiaren logoa baino handiagoak izango.



LANAK NOLA ENTREGATU

Zinemaldiaren webgune ofizialean atal berezi bat sortuko da parte-hartzaileek beraien proposamenak hara bidal ditzaten: www.sansebastianfestival.com/kartellehiaketa.

Kartelak **2017ko urtarrilaren 13tik (13:00 GMT+1) otsailaren 20ra (13:00 GMT + 1)** bidali ahal izango dira.

Aurkezturiko proposamen guztiak Zinemaldiak onartu beharko ditu. Proposamenak onartzeko fasean egileek mezu elektronikoa jasoko dute beren kartelak onartu dituzten ala ez jakin dezaten.

Zinemaldiak eskubidea du iraingarritzat edo desegokitzat jotzen dituen proposamenak atzera botatzeko. Aurrekoa gertatuz gero, Zinemaldiak erabakiko du egileari proposamena atzera botatzeko arrazoia esan ala ez esan, eta, halaber, konpontzeko modukoak diren akatsak konpontzeko aukera eman ahalko dio. Fase hori amaitutakoan, aurkeztutako kartelak berehala argitaratuko dira.

Donostia Zinemaldiak originaltasunari erreparatuko dio bereziki; horregatik, zinemaren munduko ohiko elementuak saihestea gomendatzen du, besteak beste, klaketak, zeluloidea, bobinak, eta abar. Tokiko ikonografia ere ez erabiltzea gomendatzen du.

Parte-hartzaileek inprimaki bat bete beharko dute proposamenak aurkezterakoan, eta bertan, beren helbide elektronikoa, izen-abizenak, telefono zenbakia eta kartelaren titulua jarri beharko dituzte. Kartelak JPG formatuan aurkeztu beharko dira. Artxiboak 1361x1927 pixeleko gutxieneko tamaina eta 2825x4000 pixeleko gehienekoa izan behar du, formatu bertikalean. Artxiboak ezingo du 8 Mb baino gehiago pisatu.

Kartelak izenburua izatea oso garrantzitsua da, batez ere, proposamena bozkatzeko fasean sartzen denean hura identifikatu ahal izateko eta erreferentzia bat edukitzeko. Datu hori nahitaezkoa izango da kartelaren izen-emate fasean.

Egilearen datuak jasotzen dituen inprimakiak izen-ematea egiaztatuko du, eta epaimahaiaren erabakia ezagutu ostean bakarrik erabiliko da aurkeztutako proposamenak identifikatzeko. Epaimahaiak ez du datu basera sartzerik izango.

Ezarritako artxibo formatua, euskarria edo tamaina (bai pixedetan bai proportzioetan) errespetatzen ez duten kartelak zuzenean baztertuko dira.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia



rtve

gasNatural
fenosa

M+
movistar

KARTEL IRABAZLEAK HAUTATZEA

Kartel irabazleak aukeratzeko sail bakoitzean www.sansebastianfestival.com/kartellehiaketa gunean herritarren aldetik boto gehien jaso duten 10 proposamenak hautatuko dira lehenengo.

Herritarrek sail bakoitzeko 10 kartel gustukoena aukeratzeko bozketa **2017ko otsailaren 22an (13:00 GMT + 1) hasiko da eta 2017ko martxoaren 8an (13:00 GMT +1) amaituko da.**

Botoa emateko epea amaitu ostean, Zinemaldiak sail bakoitzeko 10 kartel hautatu ahalko ditu, gehienez, guztira eta sail bakoitzeko 20 finalista izatera iristeko. Finalista horien izena **2017ko martxoaren 10ean jakinaraziko da.**

Zinemaldiak proposamenen originaltasunari erreparatuko dio bereziki, baita diseinuari, konposizioari eta sortzen duten begi-inpaktuari ere.

Epaimahai batek aukeratu ditu 2017ko 65. Donostia Zinemaldiko kartel-lehiaketaren irabazleak sail bakoitzeko balizko 20 finalisten artean, **2017ko martxoaren 14an.**

Lehiaketa irabazlerik gabe geratu ahalko da, kategoria guztietan edo edozeinetan.

Zinemaldiak aukera izango du kartel bat lehiaketan aurkeztu den saila ez den beste baterako aukeratzeko.

Epaimahaia

Epaimahaia bost kidek osatuko dute; horietatik bi Zinemaldiaren Zuzendaritza Batzordekoak izango dira, eta beste hirurak Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu (baina Zinemalditik kanpokoak izango dira).

Irabazleen berri ematea

Irabazlearen edo irabazleen izena Zinemaldiak maiatzaren 5erako deituriko prentsurrekoan jakinaraziko da jendaurrian. Egun horretan bertan, informazio hori guztia Zinemaldiaren webgunean argitaratuko da, baita lehiaketaren orrian ere.


Herritarrek on line bozkatzeko sistema

Lehiaketa horretan botoa eman ahal izateko izena eman behar da www.sansebastianfestival.com/kartellehiaketa webgunean. Horretarako, inprimaki bat bete beharko da honako datu hauekin: helbide elektronikoa, izen osoa, NAN zenbakia eta harremanetarako telefono zenbakia.

Kontua aktibatzeke, erabiltzaileak izena ematean eskatutako helbide elektronikoa balioztatu beharko du, jasoko duen berrespen mezuaren bidez.

Bozketa guztiak online egingo dira, horretarako espresuki sortutako helbidearen bitartez.

Erabiltzaile bakoitzak boto bakarra eman ahalko du eguneko sail bakoitzean.



Zinemaldiak iruzurra egin duen susmoa eragiten dion edozein erabiltzaile kanporatu ahalko du; era berean, haren kontua itxi eta eman zituen botoak baliogabetuko ditu.

Botoa eman duten guztien artean sariak zozketatuko dira. Zenbat eta gehiagotan bozkatu, orduan eta aukera gehiago zozketan saria irabazteko (ikus Sarien atala).

Kartel finalistak

Bost kartel irabazleez gain, epaimahaiak egokitzat joz gero, beste lau proposamen finalista aukeratu ahalko ditu, gehienez ere, sail bakoitzeko. Kartel horien egileei Donostia Zinemaldiaren 65. edizioan erabiltzeko 10 film-emanalditarako abonamendua emango die, eta haien proposamenak finalista gisa argitaratuko ditu Zinemaldiaren webgunean.

Saritu gabeko kartelak

Donostia Zinemaldiak artxibatu egingo ditu aurkeztu eta saritu gabeko kartel guztiak, lehiaketaren irabazlea erabaki eta hurrengo egunean bertan hasita.

LEHIAKETA IRABAZTEN DUTEN KARTELAK NOLA ENTREGATU

Irabazleak edo irabazleek euskarri digitalean entregatu behar dituzte kartelak. Kartel irabazleek diseinu grafiko bektorialeko programa profesional baten bertsio eguneratu batean eginda egon behar dute, eta kalitate eta bereizmen ezin hobean, betiere alde aurretik azaldu ditugun ondorengo aplikazioetan eta erreprodukzioetan erabili ahal izateko.

Kartelak honako hiru tamainetara egokituta aurkeztu behar dira: 48x68, 68x98 eta 115x160 cm. Horrez gain, kartel bakoitzaren bi artxibo aurkeztu behar dira, bat trazatuta (erabiliak izan diren kapa guztiekin) eta bestea trazatu gabe. Gainera hiru kartelak tamaina honetako CMYK formatuan eta 3mm-ko sangrerekin.

Era berean, erabilitako letra tipo guztiak erantsi behar dira. Beharrezkoa balitz, digitalizatutako irudien jatorrizko irudiak ere erantsi beharko dira bereizmen handiko TIFF-CMYK formatuan (300 dpi tamaina errealean eta 100 dpi gigantografien kasuan). Irudiok erabiltzeko inolako mugarik ez dagoela ziurtatzen duten agiriak ere aurkeztu beharko dira.

GARRANTZITSUA: Diseinuan egilearena ez den aurreko irudiren bat erabiliz gero, irudi horren eskubideak erosi eta ordaindu direla frogatu beharko d, edo erabilera askeko baliabideak direla ziurtatu. Frogatu ezean, Zinemaldiak automatikoki baztertuko du kartela.

Zinemaldiak kartel irabazleak nahi dituen helburu guztietarako erabili ahal izango ditu, eta, hala, kartelok nahi bezala erreproduzitu, egokitu eta erabili ahal izango ditu, beharrezkotzat jotako edozer formatutan eta euskarritan, horretarako egileari inolako baimenik eskatu beharrik izan gabe.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia



rtve

gasNatural
fenosa

M+
movistar

SARIAK

Kartel irabazleen egileei:

65. DONOSTIA ZINEMALDIKO KARTEL LEHIAKETAKO (2017) irabazlearentzako edo irabazleentzako saria MILA EURO (1.000 €) garbikoa izango da sail bakoitzeko kartel bakoitzeko. Sariak taloi izendun edo banku-transferentzia bidez emango dira.

Bozketan parte hartzen duten herritarrei:

Kartelen alde bozkatu dituzten erabiltzaile guztien artean 5 sari zozketatuko dira (1 sail bakoitzeko). Sarietako bakoitzak honakoak bilduko ditu: 10 saiotarako joateko zine-abonamendua eta Donostia Zinemaldiaren 65. edizioko argitalpenen sorta bat.

Zozketa prozedura informatiko bat erabiliz egingo da. Bozketetan zenbat eta gehiagotan parte hartu, orduan eta aukera gehiago izango dituzte parte-hartzaileek zozketan irabazle suertatzeko.

Kartel irabazleen egileek ezingo dute sariaren zozketan parte hartu irabazle suertatu diren sailetan.

Zozketaren irabazleak www.sansebastianfestival.com atarian lehiaketari eskainitako orri berezian ezagutaraziko dira 2017ko maiatzaren 9an.

DATU PERTSONALAK ERABILTZEKO ONESPENA ETA DATUON BABESA.

Lehiaketan parte hartzen dutenek beren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko xedapenen arabera erabiltzeko baimena ematen dute, betiere honako promozio honetako helburuak bete eta Donostia Zinemaldiko albiste, berrikuntza eta informazioak komunikatzeko asmoz.

Horrenbestez, emandako datu pertsonalak Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, SAren jabetzako fitxategi automatizatu batean sartuko dira aurreko paragrafoan deskribatutako helburuetarako. Datuok emateari uko eginez gero, ezinezkoa izango da lehiaketan parte hartzea. Parte-hartzaileak sartzeko, aurkarazteko, zuzentzeko eta bertan behera uzteko eskubidea baliatu ahalko du Zinemaldiari eskaera eginda honako helbide honetan: Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, SA, TABAKALERA Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, Mandasko Dukea pasealekua, 52 - 2 solairua

20012 Donostia – San Sebastián, honako erreferentzia hau jarrita: DONOSTIAZINEMALDIAREN 65. EDIZIOKO KARTEL LEHIAKETA.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia



rtve

gasNatural
fenosa

M+
movistar

Lehiaketa amaitutakoan, Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, SAK parte-hartzaileek emandako datuok gordeko ditu, Donostia Zinemaldiko informazio orokorra helarazteko asmoz. Horrenbestez, Informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuen uztailaren 11ko 34/2002 Legea betez, parte-hartzaileek komunikazio horiek jasotzeko baimena ematen diote Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, SAri. Hartzaileek edozein unetan izango dute komunikazioak jasotzeko emandako baimena bertan behera uzteko aukera; horretarako, nahikoa izango da beraien nahia bidaltzaileari jakinaraztea Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, SAri zuzenduz aldez aurretik aipatu dugun helbidean.

Lehiaketak behar bezala funtziona dezan, ezinbestekoa da emandako datuak egiazkoak eta osoak izatea, eta, parte-hartzaileen laguntzari esker, uneoro eguneratuta edukitzea. Emandako datu pertsonalak faltsuak, osatu gabeak edo eguneratu gabeak izanez gero, Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, SA kasu zehatz horietan izan litezkeen betekizunetatik liberatuta geratuko litzateke, baita lehiaketa behar bezala amaitu ahal ez izateak sortutako balizko edozer ondorioetatik ere; beharrezkotzat joz gero, lehiaketaren onuradunik ez izatea erabakitzeke aukera ere izango luke.

Irabazle suertatu eta saria onartuz gero, parte-hartzaileek beren izena eta irudia publizitaterako erabiltzeko baimena emango diote Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, SAri.

ZERGA ARAUDIA

Saria jasotzeko, egun indarrean den pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua aplikatuko da (martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuak onartua), baita harekin bat datozen gainerako xedapenak ere. Sariaren PFEZ atxikipena Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, SAK egingo du, eta Zinemaldiak berak ordainduko dio Ogasunari 439/2007 Errege Dekretuak onarturiko pertsona fisikoen errentaren gaineko erregelamenduan ezarritako baldintzetan.

Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, SAK prestatuko ditu beharrezko ziurtagiriak eta posta ziurtatu bidez helaraziko dizkio saridunari.

Jokoetan, lehiaketetan, zozketetan edo ausazko konbinazioetan parte-hartzearen ondorioz irabazitako sariak ondare transmisioek eragin ez dituzten ondare-irabazitzat hartzen dira eta, hortaz, zerga-oinarriaren alderdi orokorrean sartzen dira eta eskalan ordaintzen.

Ezingo zaizkio Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, SAri erreklamatu ondare-irabazi horren zergak ordaintzearen ondoriozko zenbatekoak, sariaren zenbatekoaren eta zerga-oinarri orokorrean sartutako gainerako errenten zenbatekoaren araberakoak izango baitira (lana, jarduera ekonomikoak, egotzitako zergak, eta abar).



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia



rtve

gasNatural
fenosa

M+
movistar


JABETZA INTELEKTUALA

1. Lehiaketaren xede diren nortasun korporatiboko kartelen eta gainerako piezen industria jabetzaren eta jabetza intelektualaren eskubide guztiak Zinemaldiaren Sozietateari dagozkio. Zinemaldiaren Sozietateak elementu horiek eskusiboki erabiltzeak ez du esan nahi esleipendunari edo hirugarren pertsona bati jabetza horien gaineko eskubiderik ematen zaionik, eskubide horiek lagatzea kontratuaren baldintzetako bat baita.
2. Kontratuaren xede diren elementuak Sozietateak eskusiboki erabili ahalko ditu, eta horiek sortzen edo diseinatzen parte hartu duen esleipendunak edo hirugarren pertsonak ezingo diete beste bezero batzuei aplikatu. Aipatutakoa lan harremanaren bitartez esleipendunari lotutako langileei ere aplikatuko zaie, baita esleipendunari zerbitzua emateari uzten diotenean ere.
3. Kartelen eta horien egokitzapenen jabetza intelektualeko eskubideak modu mugagabean lagako dira. Gainerako piezen jabetza intelektualeko eskubideen lagapenak bost urte iraungo du, erabili ziren Zinemaldiaren edizioa bukatzen den egunetik zenbatzen hasita; karteletako irudiak agertzen diren piezak salbuespenak izango dira, eta horien kasuan lagapena mugagabea izango da. Horrek ez du alde batera utziko esleipendunak bere komunikazio edo publizitate elementuetan (bookak, liburuxkak, eta abar) kartelen diseinua jartzeko aukera, horretarako neurri egokiekin.
4. Kontratutik eratorritako harreman juridikoak eskusiboki Zinemaldiaren Sozietatearen eta esleipendunaren zein kontratistaren artekoak izango dira. Sozietatea ez da kontratu bidez esleipenduna ez den beste pertsona batzuei lotuta egongo.
5. Ulertutzat jotzen denez, esleipendunarekin lan-harremana duten langileek egindako diseinuen jabetza intelektualaren titulartasuna Zinemaldiko Sozietateari lagako zaio. Nolanahi ere, esleipendunak berarekin lan harremanak dituzten langileei jakinarazi beharko die. Komunikazio falta eskusiboki esleipendunari egotzi ahalko zaio, eta horrek ez du arriskuan jarriko jabetza intelektualeko eskubideak eskusiboki Zinemaldiko Sozietateari ematea.

ADINGABEAK

Parte-hartzailereren bat adingabea balitz, gurasoetako batek ordezkatu beharko du, horretarako gurasoa dela frogatuta. Horretaz gain, lehiaketaren oinarriak eta, irabazle suertatuz gero, saria emateko baldintzak ere onartu beharko ditu.

Aurrekoa frogatzeko Zinemaldiaren egoitzara joan ahalko da, NANarekin eta Familia Liburuarekin, eta, ezin bada bertaratu, aurrekoak egiaztatzen dituen notarioaren-akta bidali beharko dio Zinemaldiari.



AMAIERA

1. Lehiaketaren oinarrietan aurreikusitako klausularen bat betetzen ez badu, Zinemaldiak kalte-galerak erreklamatu ahalko dizkio esleipendunari.
2. Lehiaketaren oinarrietako ataletakoren bati buruz zalantza edo desadostasuna badago, antolatzaileak erabakitzen duena bete beharko da.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia



rtve

gasNatural
fenosa

M+
movistar